

286. alea - 2023ko uztaila
Debako herri aldizkaria

Zuhertza
M. deba euskara
elkartea

Berriketan



FERNANDO 'FEFE' URAIN • Musikaria

Bizitza osoa bandari eta musikari emana



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

IGARZA TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

ITXAS GAIN Taberna ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

ME ENDAÑETA muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k kutxabank

LK Home

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com

Torrealday

AHOLKULARITZA LIDERRA, TOKIKO ARIMAREKIN

ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA

ONDARROA - 94 483 29 75
ERMUA - 94 317 44 35
Eta beste herri batzuetan.
www.torrealday.es

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

Seven Clovers Irish pub

943 191 295



BERRIKETAN 286

2023ko uztaila

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta

AURKIBIDEA



10 IRUDI GALERIA
Uztaileko hainbat irudi batu ditugu tarte honetan, herriko eskaintzaren erakusle



13 ERAKUSKETA
Abuztuaren 31ra arte artista bisual berrien lanak izango dira ikusgai klaustroan




15 KOPRAIXAK
Abuztuaren 4tik 9ra ospatuko dira Itziarko Kopraixak; egitaraua zuen eskura



18 ELKARRIZKETA
Debako Musika Bandan izandako ibilbideari eta bizipenei buruz mintzo da Fernando 'Fefe' Urain



22 SAN ROKEAK
Abuztuaren 14tik 18ra jai giroan murgiltzeko prest dago Deba; egitaraua zuen eskura



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

Zuhatzza euskara
elkartea

Berriketán

ARGITARATZAILEA
Zuhatzza Euskara Elkartea
HELBIDEA
Ifar kalea, 12 behea. 20820 (Deba)
TELEFONOAK
943 19 13 83 / 632 04 33 22
HEDABIDEAREN E-MAILA
berriketán@zuhatzza.com
ELKARTEAREN E-MAILA
koordinatzailea@zuhatzza.com
ERREDAKZIOA
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas
KOORDINATZAILEA
Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA
Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA
Iñaki Elosua
MAKETAZIOA
Maku Oruezabal
TIRADA
1.400 ale
MAIZTASUNA
Hilabetekaria
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
LEGE GORDAILUA
SS/246/200
ISSN: 2171-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketán-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketán@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



'Berriketan' aldizkariaren hurrengo alea, irailean

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du *Berriketan* herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren 4an oporrak hartuko ditugu erredakzioan, baina Zuhatza Euskara Elkartearen ere; hori dela eta, abuztuan ez dela hilabetekaria kaleratuko gogorazi nahi dizuegu. Hurrengo alea, paperezko edizioan, irailearen amaieran plazaratuko dugu, baina *berriketan.eus* webgunea hilabete hasierarako izango da martxan.

Irailaren hasieran izango dugu berriz ere elkarren berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian. Hilabete berezia izango da gainera, bestelako ospakizun batzuetarako tarterik ere izango baita irailean. Izan ere, 25. urtemuga borobila betetzen du aurten *Berriketan*-ek; 1998. urteko abuztuan argitaratu zen euskarazko aldizkariaren lehen zenbakia, eta ordutik 286 ale kaleratu ditu paperean. Mende laurdeneko ibilbidea ospatzeko aukera izango dugu ikasturte berriaren atarian, baina oraingoz ez dugu askoz gehiago aurreratuko.

Ordura arte, beraz, ondo izan eta, batez ere, gozatu, baina ez ezazue euskara oporretara bidali! Badakizue, guk geuk nahiago euskaraz!

Zuhatza Berriketan

Beti izango gara lagunak

Zu bezalako lagunak... gure bizitzan sartu eta hura guztiz aldatu duen pertsona berezia zara.

Zu bezalako lagun batek gure bizitzako etapa guztietan laguntzen gaitu.

Lagunak... beti izango gara lagunak, pozak eta tristurak banan-banan kontatzeko, eta horren lekuko izango ditugu eguzkia, haizea, gaua edo ilargia.

Lagunak beti, gauza guztien gainetik; arantzak eta larrosak batera doaz, distantzia edo denbora gorabehera.

Zu euria izango zara... gu haizea izan gaitezke eta, zerbait gertatuko balitz, zure lagunak izango ginatke beti.

Laguna ez da onena eskaintzen duena bakarrik, txarrena gertatzea eragozten duen hura baizik.

Muxu eta besarkada handi bat, Mikel.



Marian Larrañaga



ASKETA, S.L.
ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICIÓN:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE.BOHÈM@GMAIL.COM



ARENA BAR



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com
Tel: 685 703 843



LUKAX DORRONSORO

Kexa biderik...

Deba-Mutriku arteko zubi berritua bikain eta dotore geratu zaigu benetan eta gorespen eta txalo zaparrada mereziak jaso ditu, herritarrengandik eta urrutietako Deba zaleengandik ere, ez baita gutxiagorako horren historia luze eta gorabeheratsua kontuan hartzen badugu.

Kezka-biderik ere bada, ordea, eguneroko joan-etorrietan ibaiaren egoera aldakorrari so egonez bidaiatzeko ohitura dugunontzat. Ura garbi samar dator itxuraz, aldian behin kirats-usain zikina badario ere. Horra! Arrainik ia batere ez da ageri azkenaldi honetan, ordea, orain dela gutxira arte Mendarotik goragoraino korrokoiz eta bestelakoz gainezka ikusi izan dugun ibaiaren bi ertzetan.

Zerk edo nork izutu eta bidali ote ditu gure inguru hauetatik? Noren agindu eta mesedetan desagertu ote dira? Agian halabehar errugabearen ondorio arrunt bat baino ez da izan. Ez gara, noski, orain hasiko zubi-berritzeak ekarri digun kaltea dela esaten. Horixe bakarrik falta litzaiguke debarron izen ona aupatzeko.

A! eta egunero itsasotik ibai gainean zehar Elgoibar alderaino hegaldi-dantza ikusgarrian joan-etorri etengabe ibiltzen diren kaio-sail oparoak? Egunean bakarren bat soilik ikusten dugu azkenaldian.

Bai, eder dago benetan Deba-Mutriku zubia! Triste dago, ordea!, bizidunik gabe geratu baita, uretan nahiz airean. Zer egin?!!!

Garai batean errogatibak egin izan genituen elizan, lehorte handietan lainoei euria eskatzeko. Zeri edo nori erregutu diezaiokegu aberats genituen gure ur hauetara eta airera kaioak itzularazi ditzan? Anbotoko Mariri, Aralarko Migel aingeruari?...

"Bai, eder dago benetan Deba-Mutriku zubia! Triste dago, ordea!, bizidunik gabe geratu baita, uretan nahiz airean"

LIZ-ZK.: 3

Taxi Alain Deba

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.taxideba.eus

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA

PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KOMBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAR

Surfa gure topaleku: hausnartu, elkartu eta gozatu

ZURRUNBILOKO BERDINTASUN SAILA

Ekainaren 16-17ko asteburuan Zurrunbilo Ur Kirol Elkarteak, Yako eta Ipar Surf Skate eskolekin batera, Debadaba festa antolatu genuen. Programaren barruan, Emakumeek* euren lekua izan zezaten ekintza bat antolatzea garrantzitsua zela iruditu zitzaigun Zurrunbiloko Berdintasun Saileko kideoi eta hura aurrera eramateko lanean hasi ginen.

Emakumeei* bideratutako ekintza zuzen bat prestatu nahi genuen, surfa bezalako espazio maskulinizatuan emakumeen* presentzia ahalbidetzeko. Aldi berean, gune seguru bat eraikitzea genuen helburu; zaindua, epairik gabekoa, herrikoia eta ahalduntzeko eremua izango zen gunea.

Izen-ematea zabaldu zen, eta gure sorpresarako adin eta jatorri desberdineko 41 emakumek* eman zuten izena. Surfean ibiltzen direnak, hasiberriak, surfa inoiz probatu gabeak, debarrak zein inguruko herritarrak... zeuden tartean.

Bi orduko ikastaro bat antolatu genuen. Partaideak hiru taldetan banatu eta saioari hasiera emateko hausnarketa bat egitea proposatu genien; espazio seguru bat sortzea zen horren guztiaren helburua. Eta segurtasun neurriei eta surfari buruzko azalpenak eman ondoren, uretara sartu ginen, goizaz gozatzerako.

Hastapen ikastaro hau aurrera eramateko begiraleak behar genituen, eta Zurrunbiloko bazkide diren eta herrian surfean aritzen diren emakumeen talde bat osatu genuen, adin eta surf esperientzia ezberdineko kideekin. Horrekin erakutsi nahi genuena da surfean aritzeko ez dagoela mugarik; edonork praktika dezakeela kirol zoragarri hau (gazte zein helduek, kirola gustuko dutenek edota kirolari berebiziko maitasunik eskaintzen ez diotenen). Hau da, funtsean, nahi duen emakume* orok egin dezakeela surfa.

Hasieratik oso giro polita sortu zen parte-hartzaile guztien artean, batzuek elkar ezagutzen genuen, baina tartean baziren aurpegi berriak ere, eta denen artean talde bikaina sortu zen. Irribarreak, eskertzak



"Ahalduntze espazio bat sortzea lortu genuen, non parte-hartzaile guztiak babestuta sentitu ziren, plazererako gune bat sortuz"

eta hainbat testigantza jaso genituen. Horien artean 40 urtetik gorako ama debar batena aipatu beharra daukagu: ikastaroan parte hartzen zegoela, bere alabak ikusi zuen, eta ama konturatu zen harentzat erreferente izateko bide bat zela ikastaroa. Ahalduntze espazio bat sortzea lortu genuen, non parte-hartzaile guztiak babestuta sentitu ziren, plazererako gune bat sortuz.

Jaso dugun erantzunak beste ikastaro batzuk antolatzeko gogoia eta indarra eman digu; beraz, uste baina lehenago uretan ikusiko dugu elkar.

Zurrunbiloko Berdintasun Sailetik monitore eta emakume* guztiei zuen parte-hartzea eskertzea besterik ez zaigu geratzen. Bizi izandako esperientzia jaso nahi izan digu lerro hauetan, baina badakigu hitzak motz geratzen direla horretarako.



ITZIAR ARANA

Ez da giro?

Azkenaldiko epai euskarafoboez zer pentsatua eman didate. Gezurra dirudi XXI. mendean lehenengo hitza euskaraz egitea debekatzea. Badakigu nork nahi duen euskara putzu sakon eta ilun bat izatea, baina euskal hitzunok gure esku dugu hori ez gertatzea.

Giroa, uztaila bezala, grisa eta narrasa dagoela esan dezakegu; urteetako aurrerapausoen aurkako erasoak leku eta intentsitate desderdinetan, zirimirri erara. Zorionez, euskaldunak ez gaitu sekula geldiarazi eguraldi txarrak, galernak edo olatu zakarrak. Jakin baitakigu ekaitzaren ondoren datorrela barealdia, eta itsasoko korronteak eskubiregi, haitz handira, eta oraindik eskubirago, Sorginetxeko haitz artera jaurti bagaitu, igerian edo ur izkinetik pasiera emanez, ezkereruntz bueltatu beharko dugu, Maialen Lujanbiok Iturri Ondoan adierazi zigun bezalaxe. Aurten Iturri Ondoan-ek 10 urte bete ditu eta ez da hori gauerdiko hauntzaren eztula, ez horixe! Herriko hainbeste pertsona, adin eta iritzi desberdinekoak, bakoitza bere ikusmoldean, euskararen bueltan. Ez al da ba hori giroa goxatzen digun eguzki-printza? Edo barrua berriz pozten digun egun paregabe horietakoa?

Ez dela giro esatera nindoan, baina gurean, Deban, badela giro, *Gure Giro* esan beharra daukat. Adin tarte guztietako jendearentzako ekintzak, herriko eragile desberdinekin elkarlanean, eta ia denak euskaraz! Euskaraz gehiegi antolatzen direla esango digute batzuek, agian, baina nik guztiak euskaraz izatea nahiko nuke. Jarraitu dezagun euskaraz hitz eginez, berriketa ederrean.

"Badakigu nork nahi duen euskara putzu sakon eta ilun bat izatea, baina euskal hitzunok gure esku dugu hori ez gertatzea"

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



1937ko udaberria

Mussoliniren 'Gezi Beltzak' Deban

Matxinatutako tropa frankistek 1936ko irailaren 23an Deba hartu ondoren, Iparraldeko frontea ia zazpi hilabetez egonkortu zen Ondarroan. Fronte hori hausteko, Mussoliniren Tropa Boluntarioen Gorputza (*Corpo di Truppe Volontarie* edo CTV) armadako 'Gezi Beltzak' Debara iritsi ziren 1937ko martxoan. Goiko argazkia hondartzan aterata dago. 'Gezi Beltzak' (*Frecce Nere*) taldeko gerlari italiar batzuk ageri dira bertan, armak erakusten. Euskal Jolaseko etxea ikus daiteke atzean eta, trenbidetik harago, Toledo Enea eraikina.

Alex Turrillas Aranzeta



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia – Osteopatia
- * Podologia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista

Lersundi, 14
943 19 24 42
sasoiiko@hotmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 **DEBA** (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



JON AMUTXASTEGI

Menpe

Duela hilabete, Whatsapp aplikazioa hackeatu zidaten. Hori ezinezkoa zela uste nuen, niri gertatu zitzaidan arte. Horrelako gauzak niri pasatzen zaizkit beti. Goizean esnatu eta ezin nintzen aplikazioan sartu. Pare bat dei galdu eta hainbat SMS nituen, herrialde ezberdinetako zenbakietatik bidalitakoak. Hasieran, beldurtu egin nintzen. Zer lortu nahi dute? Gero, urduri jarri nintzen, eta, egunaren amaieran, poztu ere egin nintzen. Zazpi egun egon nintzen mezurik bidali eta jaso gabe; zazpi egun lasai-lasai.

Baina dena ez zen lasaitasuna izan. Mundu digitaletik alde egitearekin batera, ohartu nintzen ez naizela gai (ez garelako esango nuke, baina bakoitzak ikusiko du zein puntura arte duen sare sozialekiko menpekotasuna) sareetako informaziorik gabe bizitza erreala aurrera eramateko.

Lanean duzun bileraren ordu aldaketaz Whatsapp bidez abisatzen dizute. Zure lagunek asteburuan egingo duten plana bertatik antolatzen dute, eta zure familiako azken berriak ere sareetatik iristen dira azkenaldian. Zazpi egunetan zenbat bilera, zenbat plan eta zenbat berri galdu ditzakezu?

Zazpi egunak zoragarriak izan ziren. Guztiz deskonektatu nuen, baina ez soilik bizitza birtualetik. Gure bizitzak Internetarekiko gero eta menpekoagoak dira. Lana, familia eta lagunak biltzen ditu ukitu ezin daitekeen sareak, eta saretu baino gehiago harrapatu egiten gaituen amaraunak gero eta zailagoa egiten du mundu birtualetik ihes egitea, mundu errealetik deskonektatu gabe.

**"Saretu baino
gehiago harrapatu
egiten gaituen
amaraunak gero eta
zailagoa egiten du
mundu birtualetik
ihes egitea,
mundu errealetik
deskonektatu gabe"**

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan

MAIEDER
horts klinika

Eider Sampayo
Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia
Periodontzia · Endodontzia
Estetika eta zuriketak
Protesiak · Odontopediatria
Azido hialuronikoa
Aho-aurpegi eta ATM alterazioak

Zarautz
Kale Nagusia 9-1
943 13 32 69
722 81 56 60
dental@maieder.com
www.maieder.com

Uztaileko jarduerak lagatakoa, iruditan

Azken asteotan hamaika ekimen eta hitzordu izan dira aukeran, ohikoa den legez, aisialdiko jardueren agenda nabarmen hazten baita uda sasoian. Gure Giro programazioa, Frantziako Tourra, Iturri Ondoan, Galerna Festa, irteerak... Uztaileko lagatako hainbat irudi bildu ditugu tarte honetan, herriko eskaintza aberatsaren erakusle. Abuztuan ere izango da, noski, zer gozatua.

Argazki gehiago:



Bertsoa, musika eta dantza uztartzen dituen 'Hitzez Hitz' ikuskizuna.



Frantziako Tourra Deba eta Itziartik pasa zen uztailearen 3an.



Maria Intxaustegiren hitzaldia, 'Marea Gora' zikloaren baitan.



Alex Turrillas Aranzetak gidatutako bisita Sasiolara.



Ai, Zapotxin! pailazoaren 'Esan, galtzerdi maitea!' emanaldia.



Iturri Ondoan egitasmoaren baitan egindako bertso saioa.



Hamargarrenez egin da aurten Begiradak.



Bazkari herrikoa Galerna Festan.



Asteazken Akustikoak. Herriko musikarien emanaldia Gaztetxean.



Jazzes Blai festibala. Trizak taldearen kontzertua Kultur Elkartearen.

Abuztuaren 3an emango zaio hasiera, Santa Maria elizan, 40. Udako Kontzertuen programazioari



Lau emanaldi izango dira aukeran udako kontzertuen egitarauaren baitan. Abuztuko lau ostegunetan egingo dituzte hitzorduak, 20:00etan, Santa Maria elizan.

Programazioa abuztuaren 3an hasiko da, zinema eta zuzeneko musika uztartuko dituen saio berezi batekin. Euskadiko Filmategiarekin eta Aitzuri Abesbatzarekin elkarlanean antolatu da emanaldia. Bertan, *El mayorazgo de Basterretxe* film mutua izango da ikusgai, eta proiektzioa organoaren doinuekin jantziko dute. Mauro eta Victor Azconak 1928an estreinatutako film ezaguna eta aitzindaria da, besteak beste, garaiko Euskal Herriko ohitura eta tradizioak primeran islatzen dituen; gaur egun filmategiak gordetzen duen harribitxietako bat da.

Open Brass metal eta perkusio taldea ariko da hilaren 10ean. Hiru tronpeta, bi tronboi eta perkusioa batzen dituen taldeak hamabost urtetik gorako ibilbidea egin du, eta 500dik gora kontzertu eman dituzte urteotan.

Hilaren 24an, berriz, Ander Telleria soinu-jole entzutetsuaren emanaldiaz gozatzeko aukera izango da. Eta, abuztuaren 31n, Teresa Albero sopranoak eta Erik Garcia pianistak itxiko dute aurten 40 urte betetzen dituzten udako kontzertuen zikloa.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA



ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

DEUTSCH-ENGLISH-EUSKARA-FRANÇAIS

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK
hizkuntza guztietan:
Egun bat eskolan + lan
pertsonala Moodle
plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: **72,36 €**

Agiri ofiziala
eskura ezazu!

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA



Matrikula:
Irailaren 1etik 18ra

On-line
IKASGUNEA
plataformaren bitartez



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas



Otaola hiribidea 29
eoeibarheo@gmail.com
943 89 92 75

@eoeibarheo



www.eoeibarheo.hezkuntza.net



Jon Amorrorturen eta Mikel Erkiagaren margolanekin jantzi dute klaustroa

Debako Udalak, Arte Eskola Bizirik kolektiboarekin elkarlanean, artista bisual berrien lana sustatzeko eta zabaltzeko helburuarekin bigarrenez antolatutako lehiaketaren emaitza da elizan ikusgai dagoen erakusketa. Bi sortzaile bizkaitarren lanak uztailean eta abuztuan izango dira bertan.

Bi proiektu artistiko aurkeztu dira lehiaketaren aurtengo deialdira eta biak ala biak izan dira sarituak. Epaimahaiak euren obra bateratu eta klaustroko erakusketa elkarlanean prestatzeko aukera eman die Jon Amorrorturi eta Mikel Erkiagari, eta haiek pozik heldu diote erronkari, proposamena onartuta.

Bilbon sortuak dira biak, eta aurrez ere elkar ezagutzen zuten, "baina hau izan da elkarlanean aritu garen lehen aldia", azaldu du Erkiagak. "Pintura medio, gure adiskidetasuna sendotzeko modu bat izan zitekeela pentsatu genuen eta, egia esan, oso polita izan da". Pinturarekiko pasio partekatua, irudi batetik irudi berriak sortzeko gaitasuna eta sentsibilitate puntu amankomunak izan dituzte bidelagun prozesuan, eta *Zer axola dio, azkenean pintura da (Qué más da, al finales pintura)* goiburupean aurkeztu dute azken emaitza jendaurrean.

Bakoitzak bere estudioan egindako obra sorta bat ekarri du Debara, klaustroko hormak jantzteko. Akrilikoa, olio, espraiak eta argizariak baliatuta sortutako margolanak dira, kolore eta tamaina ezberdinekoak, eta oro har landareak, loreak, natura, hormak, irudiak nahiz paisaiak dira nagusi.

Abuztuaren 31ra arte

Amorrorturen eta Erkiagaren erakusketa abuztuaren 31ra arte egongo da ikusgai. Eliza zabalik egoten den uneetan ez ezik, uztailean ondoko ordutegian ere egongo da herritarrentzat zabalik: asteartetik larunbatera 17:00etatik 19:00etara bitartean, eta jangandean eta jaiegunetan 17:00etatik 20:00etara.



Jon Amorrortu eta Mikel Erkiaga, inaugurazioan. ERREDAKZIOA





Auzitegi Konstituzionalaren epaia salatzeko agerraldi jendetsua egin dute Bilbon

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hainbat alkatek eta udal hautetsik eta euskalgintzako hainbat ordezkari agerraldia egin zuten uztailaren 6an Bilbon, EA Eko Auzitegi Nagusiaren aurrean. Bertan izan ziren, besteak beste, Alazne Txurruka Debako alkatea eta Gilen Garcia alkate ohia ere.

Udalek euskara hutsean jarduteko eskubidearen aurka Espainiako Auzitegi Konstituzionalak plazaratutako epaia salatu eta,

aldi berean, udal legearen 6.2 artikulua ezeztatzearen larritasuna nabarmendu zuten, euskararen ofizialtasuna bera ere zalantzan jartzen dela adieraziz. Mutrikun, Arrasaten eta Zarautzen ere elkarretaratzeak egin dituzte eguntan, euskaraz aritzen diren udalei babesa adierazteko.

Bide beretik, gogorazi dute azaroaren 4rako "oldarraldi judicialaren aurkako" manifestazio handia deituta dagoela Bilbon.

Debako Caritasek elkartasun tonbola antolatu du, zazpigarren urtez

Azken sei urteetan bezala, aurten ere zabalik izango da Debako Caritas elkarteak San Roke jaien bueltan antolatzen duen elkartasun tonbola. Abuztuaren 4an irekiko dute eta txartel guztiak agortu arte egunero egongo da zabalik 12:00etatik 22:30era, Sagarna Elektrogailuak denda zegoen lekalean.

Euro baten truke, 35.000 txartel

ipiniko dituzte salgai eta, iragarri dutenez, "5.000 sari zuzen irabazteko aukera egongo da". Doaintzan emandako produktuez osaturiko dozenaka sorten zozketa berezia, berriz, abuztuaren 25ean egingo dute, 19:00etan hasita.

Txandak osatzeko boluntarioen beharra dutela ere esan dute. "Interesa dutenek lekalean bertan eman dezakete izena".

5.000 sinaduratik gora batu ditu Euskotren 30 minuturo plataformak

Iazko azaroan hasitako kanpainak "oso harrera ona" izan duela jakitera eman du Euskotren 30 minuturo plataformak. Deban, Mutrikun, Mendaron, Altzolan, Elgoibarren, Eibarren, Zumaian eta Arroa Behean aritu dira hileotan sinadurak batzen, eta guztira 5.676 atxikimendu lortu dituzte.

Ekimenaren "arrakasta" ikusita, Debabarreneko, Zumaiako eta Zestoako alkateek ere babestu dute kanpaina eta, babes horrekin, Garraio Sailera bidali zuten eskaera. Ekainaren 15ean jaso zuten erantzuna, eskaera Euskotreni helarazi ziotela esanez. Plataformak, bere aldetik, Euskotreni ere egin dio zuzenean eskaera, "lehen eskutik beraien erantzuna" jasoko duelakoan.

84 herrialdetako 1.057 film labor jaso dituzte aurten Animadaban

Animadaba Animaziozko Nazioarteko Zinema Jaialdiko antolatzaileek hitzordua prestatzeko lanetan murgilduta jarraitzen dute. Askotariko ikusleak, zinemagileak, industriako profesionalak eta artistak batuko dituen jaialdiari buruz oraindik ere gutxi aurreratu duten arren, lehiaketan parte hartzeko 84 herrialdetako 1.057 film labor jaso dituztela jakinarazi dute. "Oso pozik gaude izandako harrerarekin".

Irailaren 6tik 9ra bitartean, haur eta helduentzako filmak proiektatzeaz gain, tailerrak, eskola magistralak, aurkezpenak, solasaldiak, kontzertuak eta beste hainbat ekintza ere egingo dituzte.

Kopraixei heltzeko prest daude Itziarren

Jubilatuen Egunarekin hasi eta Gazte Egunarekin amaituko dira aurtengo Kopraixak Itziarren. Sei egun izango dira orotara eta dagoeneko prest dago guztia auzolanean antolatutako egitarauari zukua ateratzeko. Bazkariak, kontzertuak, jolasak, txapelketak, herri-kirolak... denetarik izango da aukeran, urtero legez. Hemen duzue ikusgai egitaraua eta informazioa, jai batzordeko zenbait kideren hitzekin osatua.

Abuztuak 4, ostirala

Jubilatuen Eguna

12:30 Meza nagusia Itziarko elizan.

Ondoren, herriko dantzarien emanaldia.

14:00 Jubilatuen bazkaria Salegi jatetxean.

Ondoren, herriko bertsolarien emanaldia.

19:00 Pala txapelketako finala.

Abuztuak 5, larunbata

10:00 Meza nagusia Salbatore basilizan.

10:30 Umeen pilota partida Zabalsoro frontoian.

16:00 VI. Itziar Trail mendi lasterketa.

16:15 Haurren VI. Itziar Trail.

18:30 JOSELONTXO'S txaranga, Burugorri ostatutik abiatuta.

19:30 Txupinazoa plazan. Marixiren jaitsiera, danborrada eta buruhandiak.

23:30 Erromeria OBANEUKE taldearekin plazan.



Abuztuak 6, igandea

07:00 Sakako zezenak plazan.

11:30 Meza nagusia Itziarko elizan.

12:00 Txakolin dastaketa

plazan. Ekoizleak: Flysch eta Erlete Goikoa.

13:00 Harri-jasotze erakustaldia

Mikel Lopetegi 'Urria'
Euskal Herriko harri txikien txapeldunaren eskutik, plazan.

18:00 Bikoteen arteko XVIII. Dantza

solte txapelketa, Jon Ostolaza eta Raket Pujana trikitilariekin, plazan.

Ondoren, errektortari gazteen

txapelketa eta Sakako zezenak plazan.

23:00 Kontzertua Itziarko elizan: **ARIMA SOUL.**

Sarrerak: aurrez 10€ (Gure Dendan, Burugorri eta Debako Arkatzen salgai), bertan 12€.





Abuztuak 7, astelehena Helduen Eguna

11:30 Meza nagusia Itziarko elizan.

11:30 JAN DA ERAN txaranga, herriko kaleetan zehar.

12:00 Sagardo dastaketa Iratxe Ibarra eta Agin Laburu bertsolariak alaiturik, Kalebarrenian.

14:30 Herri bazkaria Zabalsoro frontoian.

18:00 Helduen arteko jolasak, dantza eta aureskua.

Ondoren, Sakako zezenak plazan.

23:00 Erromeria LAIOTZ taldearekin plazan.

00:30 Play-back lehiaketa plazan. *Herrikoek ez ezik, beste edonork ere parte hartu dezake (izena emateko azken eguna abuztuaren 6a).

“Itziartarron ekarpenik gabe ezingo litzateke horrelako egitaraurik osatu Kopraixetan”

IRATI IRIZAR • Musikaria eta Jai Batzordeko kidea



Kopraixetan giro "alai, koloretsu eta distiratsua" egoten dela dio Irizarrek. Egun bakarraz gozatzeko aukera izango duen arren, beti bezala, danborrada zuzentzera irtengo da.

Zer berezitasun dute Kopraixek?

Itziartarron artean auzolanean antolatutako festak dira Kopraixak eta, nire ustez, horrek egiten ditu berezi. Lan boluntario handiaren ondorioz, egitarau polit bat prestatu eta hainbat egunez koloreztatu egiten da Itziarko herria; oso jai bereziak dira bertakoontzako. Hori bai, itziartarron ekarpenik gabe ezingo litzateke horrelako egitaraurik osatu. Beraz, azpimarragarria den eta itzalpean egiten den lan bikaina txalotuko nuke. **Jaien antolakuntza lanetan ere parte hartzen duzu.** Parte hartzearekin batera, gauza batzuk antolatzen edo talde batzuk lotzen ere aritu naiz aurten ere. Orain ez naiz Itziarren bizi, baina urrunetik egin daitezkeen kon-

taktuak lotzeko eta talderen bat ekartzeko aukera izan dut, Joselontxo'stxaranga eta Laiotz taldea, besteak beste.

Zer berritasun ditu aurtengo egitarauak?

Egitaraua ekintza ugari betea dugu. Oso berezia izango da, adibidez, Liher bezalako talde erreferente bat Itziarko plazan izatea.

Zein da zure egunik gustukoena?

Egun guztiek dute beren xarma, baina bat aukeratzekotan Gazteen Eguna hautatuko nuke, azken urteetan gehienbat egun horretan parte hartu izan baitut. Bizikleta lasterketa, kuadrillen arteko jolasak, paella lehiaketa, Jan da Eran txarangarekin kalejira, aureskua, kontzertua eta eguzkia berriro ere irten arte giro onean eta lagun artean egoteko eguna izaten da jaietako azken eguna.

Zer eskatzen diozue bertara jaietzatza datozen?

Plazan izango diren emanaldi eta ekintza ezberdinez gozatzera gonbidatuko nituzke. Jolasak, bazkariak, kontzertuak, emanaldiak... giro ederra izango dugu Kopraixetan!



Abuztuak 8, asteartea Umeen Eguna

11:00 Umeentzako jolasak plazan eta frontoi zaharrean.

13:00 Entzierroa kartoizko zezenekin.

Ondoren, zezenak eta pottokak (16 urtetik gorakoentzat).

14:00 Umeen bazkaria Salegi jatetxean.

17:00 Haurrentzako ikuskizuna plazan.

Jarraian, euskal dantzak, maleta lasterketa...

Ondoren, zezenak eta pottokak (16 urtetik gorakoentzat), **buruhandiak** eta **Kantu Jira**.

20:00 Ogitarteko jana plazan.

21:00 Erromeria GAUARGI taldearekin plazan.

22:00 Suzko zezena Bikain jatetxetik plazara.

Ondoren, erromeria GAUARGI taldearekin plazan.



Abuztuak 9, asteazkena Gazteen Eguna

10:30 Umeentzako puzgarriak frontoian.

11:30 Bizikleta lasterketa Kalebarrenetik abiatuta.

12:30 Gazteen arteko jolasak zezenekin plazan.

Ondoren, Sakako zezenak.

14:30 Paella txapelketa Zabalsoro frontoian.

17:30 JAN DA ERAN txaranga, frontoitik plazara.

18:00 Gazteen arteko jolasak eta aureskua.

00:00 Kontzertuak plazan: **LIHER** eta **DJ ELEPUNTO**.

07:00 Peto jaitziera eta gaupaseroen argazkia.



“Gazteen beharrak entzunak izan daitezten, beharrezkoa da jai batzordean parte hartzea”



Kopraixak antolatzen aritzen zen gazte talde batek hasitako bidari jarraiki, Jai Batzordea osatzen duten eragileen taldera batu zen duela bi urte Itziaroko Gazte Asanblada. Bi funtzio nagusi bete ditu orduetik: batzordean gazteen ordezkaritza bermatzea eta gero eta harrera hobea duen Gazte Egunaren antolakuntza dinamizatzea. "Bi funtzio nagusi horien baitan, ekarpen berriak egiten eta ideia berriak

planteatzen saiatu gara, betiere gazteen eta herriaren mesederako direlakoan", azaldu du Elene Arratibel IGako kideak.

Bere iritziz, aipagarria da jaientarako propio jartzen duten Tranpapeko Txosnaren bueltan sortzen den giroa ere. "Ikaragarria izan da azken bi urteotan zenbat gaztek parte hartu duten ikustea; barra eta gainerako guztiak, hain zuzen, gazteok muntatu ditugu hutsetik hasita". Eta lanerako txandak betetzeko jende asko behar izan badute ere, gazteen prestutasunari

esker guztia lotzea lortu dutela dio. "Hemendik eskerrak eman nahi genizkieke lagundu duten guztiei".

Saretzeko eta harremanak estutzeko Itziar zerbaitetan berezia baldin bada, hori "belaunaldi eta adin guztietako jendea elkarrekin harremanetzeko dagoen joeragatik" dela ere nabarmendu du Arratibelek. Jaiek, beraz, "saretzeko eta harremanak estutzeko" aukera eskainiko dutelakoan dago. "Horri zuku ateratzen ahaleginduko gara".

Hori esatearekin batera, jendea Kopraixez gozatzea gonbidatu du. "Jai xumeak badira ere, aukera ezin hobea da ondo pasa nahi duenarentzat".

“Bandako kide izateak entseatzeko eta ekintzetan parte hartzeko konpromisoa hartzea dakar”

FERNANDO 'FEFE' URAIN • Musikaria



Fefe Urain bezala ezagunagoa den Fernando Urain Oñederrak (Deba, 1972) ia bizitza osoa darama musikagintzari eta Debako Musika Bandari lotuta. Duela 40 urte hasi zen bandan tronpeta jotzen eta, gerora, taldeko zuzendari bihurtu zen; 32 urte daramatza zeregin horretan. Gaur-gaurkoz, Durangoko Orfeoiko zuzendaria eta Debako Musika Eskolako tronpeta irakaslea ere bada.

Musikarekin lotura estua duen familia batean jaio zen eta, Debako Musika Bandaren sortzailearen oinordeko izanik, bere aurrekoek egindako bideari jarraipena eman dio Urainek. "Familian musikari asko egon dira. Nire birraitona, adibidez, Debako Musika Bandaren sortzailea eta zuzendaria izan zen eta aitona eta osaba ere zuzendariak izan ziren. Nire aitona eta ondoren osaba zuzendari zirenean, beste hiru osabek eta nire aitak ere bandan jotzen zuten". Bere ibilbideaz eta beste hainbat kontuz galdezka joan zaio *Berriketan*.

Uda sasoiak kontzertuak eta emanaldiak eskaintzeko garai aproposa izaten da. Zer asmo dituzue hurrengo asteetara begira?

Udara begira ekitaldi ugari ditugu hitzartuta. Uztailaren 16an Markina-Xemeinen eta uztailaren 25ean Mendaron izan gara, eta uztailaren 29an Dantzaldia daukagu Foruen Plazan. Hitzordu horien ondoren, San Roke jaiak prestatzen hasiko gara.

Eta nolako errepertorioa darabilzue esku artean?

Banda bat garen heinean, denetik jotzen dugu. Hau

da, estilo guztiak lantzen ditugu, egoera bakoitzak eskatzen duenera egokituz.

Taldekideok urteko zein emanaldi duzue gustukoena?

Emanaldi bakoitzak bere xarma dauka. Kontzertuek, esate baterako, musikalki gehiago betetzen dute. Beste emanaldi batzuek, aldiz, emozio itzela sorrarazten dute.

Zeintzuk, adibidez?

Jaietan San Rokeri zapia jartzen zaionean *Debako Martxa* jotzeko unea, adibidez, oso berezia izaten da.

Jaiak hastear dauden honetan, gainera, bandako kideok zelan bizi dituzue ospakizun egunak?

Jotzen eta herria alaitzen oso ondo pasatzen dugun arren, musika bandako kide izateak entseatzeko eta ekintzetan parte hartzeko konpromisoa hartzea dakar, eta horrek guztiak inplikazioa eskatzen du. Gure oporrak, esate baterako, San Roke jaien ondoren izaten dira.

Non eta zer maiztasunekin entseatzen duzue?

Orokorrean astean birritan entseatzen dugu Agirre jauregian, baina emanaldiren bat gerturatu ahala hirugarren entsegu bat ere egiten dugu.



Uneotan zein egoeratan dago taldea? Zenbat kide zarete?

Gaur egun 40 kidek osatzen dugu banda. Talde oso gaztea da, baina ditugun musikariek primeran erantzuten dute. Lan ikaragarria egiten dute eta emanaldi bakoitza maila onean eskaintzen dugulakoan nago.

Gaur-gaurkoz, taldearen jarraipena bermatua ikusten al duzu?

Gaur egun gero eta eskaintza zabalagoa dagoenez, haurrek musika ez dute lehenengo aukeratzat hartzen; instrumentu bat ikasteak, gainera, bere denbora eta dedikazioa eskatzen du. Debako Musika Bandara kide berriak erakartzeko orduan oso garrantzitsua da Debako Musika Banda Gaztea. Hori da, hain justu, gure harrobia, baina bertan haur asko dauden arren, bizpahiru urteren ostean ia gehienek musika albo batera uzten bukatzen dute.

Zergatik? Zein izan daiteke arrazoa?

Askotan beste zaletasun batzuk nabarmentzen dira eta, denera iritsi ezinik ibiltzen direnez, musika lagatzen amaitzen dute. Egia esan, egoera hori iraultzeko

“Bandara kide berriak erakartzeko orduan oso garrantzitsua da Debako Musika Banda Gaztea. Hori da, hain justu, gure harrobia”

ez dakit zer egin dezakegun. Bandako kide izateko edozein adin eta momentu da egokia. Beraz, gogoia daukaten guztiak animatzen ditut instrumentu bat ikasi eta gugana etortzera. Horiekin batera, sasoi batean bandako kide izandakoak ere gurekin berriro entseatzera gonbidatu nahiko nituzke.

Bandak herritarren estimua duela iruditzen al zaizu?

Herritarren partetik oso baloratuak sentitzen gara, eta hori asko eskertzen da. Oso pozik gaude gure emanaldietan izaten dugun berotasun eta entzule kopuruarengatik, eta debarrei asko eskertzen diegu bandako bazkide izanik beraien laguntza ematea.



“Ni hasi nintzen garaian entseatzeko genituen baldintzek eta gaur egungoek ez dute zerikusirik, asko hobetu da egoera”

“Hiru aldiz irabazi dugu Euskadiko Banden Lehiaketa. Horrek guztiak sekulako arrakasta eta oihartzuna eman zion bandari”

Kanpoan ere sarri ibiltzen zarete. Aberasgarria izango da hori ere taldearentzat, ezta?

Bai, oso interesgarria da herriatik kanpo jotzea eta beste herrietan Deban egiten duguna zabaltzea. Hori guztia interesgarria izateaz gain, motibagarria ere bada guretzat, eta gure arteko harremana sendotzea dakar.

Mende laurden baino gehiago daramazu batuta hartuta. Nola sortu zitzaizun aukera hori?

19 urte nituenean eman zidaten aukera. Garai hartan musika ikasketetan oso murgilduta nengoen eta, aurreko zuzendaria Madrilerara ikastera joan zenez, bandako kideek taldea zuzentzeko proposamena egin zidaten.

Erantzukizun handia hain gazte izanda... Erronka handia izan al zen?

Bai, erronka polita izan zen niretzat. Egia esan, ez nekien oso ongi non ari nintzen sartzen eta zer nolako erantzukizuna zekarren banda bat zuzentzeak, baina, egia esan, ilusio handiz hartu nuen eskaini zidaten aukera edo ardura berria.

Zer aldaketa jasan ditu bandak zeu zuzendari zarenetik?

Pila bat. Entseatzeko lekua, esate baterako. Bandan jotzen hasi nintzenean hondartzan zegoen ikastolako ping-pongeko mahai baten inguruan entseatzeko genuen, partiturak mahaiaren gainean jarrita. Gerora,

leku berean baina atrilekin entseatzeko hasi ginen, musika banda baten formatuan. Handik, gero, Osioko lokal batera mugitu ginen, gaur egun Gaztelekua dagoen tokira, eta azkenik, 2011n, musika eskola berria eraiki zen, eta bertan dugu orain lokalak. Urteak aurrera joan ahala, gure entseatzeko baldintzak hobetzen joan direla esan genezake, eta une hauetan primerako entsegu lokalak daukagu. Ni hasi nintzen garaian entseatzeko genituen baldintzek eta gaur egungoek ez dute zerikusirik, asko hobetu da egoera! Bestalde, jende asko pasa da bandatik, eta bakoitzak bere ekarpena egin dio taldeari. Gizartea aldatzen doan heinean, baina, gero eta zailagoa da talde bateko kide izateak dakarren konpromiso horri eustea.

Zein da zure lan egiteko funtzionamendua? Ba al du berezitasunik?

Zuzendaritzari dagokionaz gain, nik garrantzi handia ematen diot talde sendoa eratzeari eta entseatzeko giro ona izateari. Era berean, jotzen ditugun obrak erakargarriak izatea ere garrantzitsua dela esango nuke, taldekideak gustura eta gogoz etortzeko.

Oroitzapen asko izango dituzu bandarekin. Baina horietatik zein da zuretzat ahaztezinena?

Egia esan, zaila egiten zait bandarekin bizi izan ditudan oroitzapen guztien artean bat aukeratzea.



Fefe Urain Debako Musika Banda zuzentzen, Santa Maria elizako klaustroan. DEBAKO MUSIKA BANDA

Honako laurak azpimarratuko nituzke: 1994an, Euskadiko Banden Lehiaketa lehenengo aldiz irabazi genuenean; 2003an, Real Sociedad ligan bigarren geratu zenean, Anoetan Txapeldunen Ligako abestia zuzendu nuenean Debako Musika Banda eta Donostiako Orfeoiarekin batera, 15.000 lagunengoa aurrean; 2008an, Donostiako Jazzaldian Big Band formatuan eman genuen kontzertua eta, 2009an, Debako zezen plazan egin genuen emanaldia.

Zenbait lehiaketa ere irabazi dituzu Debako bandarekin. Zer suposatzen du horrek?

Hiru aldiz irabazi dugu Euskadiko Banden Lehiaketa: 1994an, 1996an eta 1997an. Horrek guztiak bandari sekulako arrakasta eman zion, Euskal Herri osoan Debako Musika Bandaren izena lau haizetara zabalduz. Gaur egun, ez da mota horretako lehiaketarik egiten, eta pena bat dela iruditzen zait.

Hainbat disko ere grabatu dituzu...

Diskoetxe batean hiru disko grabatu ditugu: *Deba eta Sorozabal* izan zen lehenengoa, 1997an, Pablo Sorozabal jaio zeneko mendeurrena ospatzeko; bigarrena, 2001ean, *Donostiako Arriada* izenekoa, Union Artesana elkartearekin; eta, hirugarrena, 2003an Debako Musika Bandaren 25. urteurrena zela eta grabatu genuen, herriko kanta esanguratsuenekin.

Horiez gain, 2007an eta 2009an beste bi kontzertu ere grabatu genituen DVDan.

Debakoaz gain, bestelako banda edo talde batzuk ere zuzentzen dituzu. Zertan aldatzen da lan egiteko modua batetik bestera?

Talde bakoitzaren beharretara egokitzea ezinbestekoa da. Abesbatzan, esaterako, partiturak berriak direnean, ahots ezberdinak banaka aritzen dira, eta guztiek partitura menperatzen dutenean elkartzen ditut. Bandan, ordea, elkarrekin ikasten ditugu partiturak. Hala ere, abestiak zehaztasunez ikasteko, egurra alde batetik, metala bestetik eta perkusioarekin ere egiten ditut entseguak batzuetan.

Etorkizunera begira zer proiektu dituzu esku artean?

Proiektu berrien bila nabil beti, zuzentzen ditudan taldeetako musikarientzat eta entzuleentzat interesgarriak eta ezberdinak izan daitezkeen emanaldiak eskaintzeko.

Zurea da azken hitza. Zerbait gaineratu nahi?

Elkarrizketa hau baliatuz, jende guztia animatu nahiko nuke herriko talde ezberdinetako kide izatera. Debako kultura galdu ez dadin eta taldeak desagertu ez daitezen, ezinbestekoa da eragile horietan parte-hartze zabala egotea. Gogoa eta ilusioa baldin badaude, inoiz ez da berandu gauza berriak ikasteko.



Abuztuaren 14tik 18ra bitartean egingo du eztanda festak Deban

Aurreko urteetako enildo beretik joango dira aurtengo San Roke jaiak Deban, zenbait berrikuntza izango diren arren. Abuztuaren 14rako dago jarrita, beste behin ere, ospakizunei hasiera ofiziala emango dien ohiko hitzordu jendetsua, eta hilaren 18ra arte luzatuko da festa giroa. Ondoko lerro eta orrialdeetan jaso dugu udaleko Jai Batzordeak helarazitako egitaraua, baita bertan zuzenean parte hartuko duten hainbat herritarren adierazpenak ere. Goian duzue ikusgai, bestalde, jaiak iragarriko dituen kartela, Pablo Turrillasen *San Roke dantzan* izenburuko lana; aurtengo lehiaketara aurkeztutako kartelen artean, lau hautatu zituen epaimahaia eta herritarrek boto bidez hautatu dute irabazlea.

Abuztuak 13, igandea

18:00 Desenkajonamendua eta entzierrilloa.

Abuztuak 14, astelehena

Jaien hasiera

18:00 San Roke festen hasiera. Kanpai errepika eta udaletxeko balkoitik txupinazoa San Roke festei hasiera emateko. Ondoren, *Debako Martxaren* soinuarekin zapi gorria jantziko zaio San Rokeri.

Jarraian, kalejira Musika Bandarekin, txistulariekin eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

19:30 Udalbatza elizara abiatuko da *Alkate Soinua* entzunez. Gure Kai dantza taldeak erreberentzia eta ezpata-dantza dantzatuko ditu. Ondoren, **Hilarion Eslavaren salbea** abestuko du Aitzuri Abesbatzak.

22:30 Danborrada Ozio-Bide elkartearen eskutik.

01:00 Erromeria MUGI PANDEROA taldearekin zumardiko karpan.

Berriketan 2023ko uztaila

ARG.: JOXERRA LARRAÑAGA





Abuztuak 15, asteartea Umeen Eguna

09:00 Diana Lizarrako Gaiteroekin.

09:30 Umeentzako entzierroa kartoizko zezenekin.

10:00 Artisau azoka pasealeku estalian eta Gudarien Plazan.

11:00 Kalejira Luzaro eskolatik. San Roke txikiari dantza Plaza Zaharrean.

11:30 Kalejira musika eskolatik. Danborrada eta erraldoi txikien dantza Simon Berasaluze plazan.

12:00 Plazako jaialdia: danborrada, herri-kirolak, dantzak eta jolasak.

13:00 2022ko abuztuaren 1etik 2023ko uztailaren 31ra bitartean jaiotako **umeei zapi gorria** jarriko die alkateak udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

16:00-20:00 Adin ezberdinetako umeentzako jolasak Simon Berasaluze plazan.

**Oharra: Ur-puzgarrietarako bainu-jantzia ekartzea gomendatzen da.*

18:00 Aurkitu gabeko altxorra, adin guztietarako ikuskizuna, plazan.

19:00 Erromeria BERANDUEGI taldearekin Plaza Zaharrean.

23:00 Kontzertuak zumardiko karpan: **TATTA, MUTIKO, DENSO, MAIXA, MALAKIAS eta DJak (FAROLA SOUND eta KERCO).**

“Nahitaezko aldaketak Umeen Egunean”, etxeko animaliak babesteko 9/2022 Legearen ondorioz

"Nahitaezko aldaketak" izango dira jaietako egitarauan, udalak jakinarazi duenez, "Deban errotuta dauden haurrentzako zezen-festak kendu behar izan ditugu eta". Aurten ez da izango txikientzako ohiko entzierroa Umeen Egunean (kartoizko zezenak erabiliko dituzte, benetako zezenen orde), ezta abuztuaren 16 eta 18ko bigantzarik ere (eguerdikoak nahiz zezenketen ostekoak).

Etxeko animaliak babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legea (abuztuaren 17ko EHAA, 157. zenbakia) indarrean jarri izanaren ondorioz hartu da erabakia. "Horrekin batera, lege horren hirugarren artikulua ezartzen du arautu gabeko zezen-festak legearen eremutik kanpo geratzen direla. Gainera, arau beraren 27. artikulua debekatu egiten ditu garapen-araudirik edo baimen berezirik ez duten animaliekin egiten diren ospakizunak. Euskal Autonomia Erkidegoko zezen-araudian ez dira aurreikusten umeentzako eta urtebetetik beherako abelburuak dituzten ospakizunak; hori horrela, egun, ezin dira programatu", azaldu dute.

Entseguetan eta ospakizunean parte hartzeko deia egin dute Umeen Eguna antolatzen duten herritar boluntarioek

Jaietan 1952az geroztik hurrei eskaintzen zaien eguna antolatzeaz arduratzen ari den herritar taldeak asteak daramatza guztia txukun prestatzeko helburuz lanean. Uztailaren 13an ekin zieten danborradako entseguetara, harrezkero, ostegunetan bildu izan dira. Abuztuan, astearte eta ostegunetan izango dira saioak, 19:00etan (Ifar kaleko Luzaro eskolan), eta entsegu orokorrak festen atarian egingo dituztela azaldu dute.

2018an eta aurretik jaiotakoak arduratuko dira aurten danbor hotsak kaleetan barrena zabaltzeaz. 2021, 2022 eta 2023an jaiotakoek mozorrotuta dantzan parte hartu ahal izango dute ospakizunean. Eta 2019an eta 2020an jaiotakoak kantinera, kantinero edo sukaldari paperean ibiliko dira panderokin.

Bestalde, jaialdia ere egingo dute. Erraldoi taldeak, txistulariek, euskal dantza taldekoek, banda gaztekoek, gaiteroek eta beste hainbatek parte hartuko dute bertan.

Entseguetan eta ospakizunean parte hartzeko gonbidapena herritar guztiei egin diete antolatzaileek.

Abuztuak 16, asteazkena

San Roke Eguna

07:00 Diana Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00 Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (+16 urte).

09:30 Herritarren agurra San Rokeren irudiaren aurrean, Plaza Zaharrean: **Gure Kairen San Roke ezpata-dantza.**
Jarraian, San Roke ermitara **prozesioa** eta **meza nagusia.**

12:30 Aurrekua Foruen Plazan, Gure Kairen eskutik.
Ondoren, enbolatuak.

18:00 Ipuin lapurra umeentzako ikuskizuna Plaza Zaharrean.

18:00 Bertso saioa txosnagunean: Agin Laburu, Nerea Elustondo, Sustrai Colina eta Uxue Alberdi.

18:00 Zezenketa. Toreatzaileak: Joaquin Caro eta Tomas Bastos. Sobresalienteak: Daniel Sanchez.



Ondoren, enbolatuak (16 urtetik gorakoentzat).

20:00 Kontzertua Plaza Zaharrean: **THE PUSHERMEN.**

23:30 Su artifizialak hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).

00:00 Mariatxiak zumardiko karpan.

“Gaur egun, bermatuta dago emakumeon presentzia San Roke ezpata-dantzan”

IERA LARRAÑAGA • Gure Kai EDT



Pisu handia du Gure Kai dantza taldeak herriko festetan eta, besteak beste, San Roke ezpata-dantza plazaratuko du berriz ere hilaren 16an. Iera Larrañagak azaldu dizkigu dantzaren berezitasunak.

Zerk egiten du berezi San Roke ezpata-dantza?

Debako patroiairen omenez egiten den dantza da, nahiz eta uste den patroia izendatu aurrekoa izan daitekeela. Litekeena da santuaren omenez eraikitako ermitaren garaikoa izatea. Euskal Herrian ez dira asko bi ilaretan dantzatzen diren ezpata-dantzak (eta gainera ilara bakoitza bando ezberdinekoa izanda); bando bakoitzak bere kolorea du (gorria edo urdina), baina kapitainak bi bandoetako xingolak izaten ditu gurutzatuta. San Roke Egunean, zazpi bat aldiz dantzatzen dugu ezpata-dantza

herriko toki ezberdinetan, pare bat orduz, baina dantza osoa birritan bakarrik dantzatzen dugu.

Ezpatarik gabeko ezpata-dantza da gurean, ezta?

Hasieran ezpatekin dantzatzen omen zen eta 1884-an oraindik ere erabiltzen omen ziren, baina denborarekin makilek beren tokia hartu zuten eta, harrezkero, zinta zuri-gorri apaindutako makilekin dantzatzen dugu.

1967-68 urteetan parte-hartzea izan ondoren, 46 urte beranduago (2013an) hasi ziren emakumeak berriz ere herriko San Roke ezpata-dantzan parte hartzen...

Bai, taldeak eta bertan geunden emakumeok lanketa handia egin genuen emakumeek presentzia izan zezaten. Aurretik zeudenen eta orduan geundenon artean lantaldea sortu eta, adituen laguntzaz, lanketa egin ostean lortu genuen emakumeok berriz ere San Roke ezpata-dantzan aritzea. Gaur egun, bermatuta dago gure presentzia.

Abuztuak 17, osteguna Marinel Eguna

08:30 Kardantxuloen Kantua, Plaza Zaharretik.

10:30 Jorrai dantza kaleetan, Gure Kai dantza taldearen eta Kalez Kale Txistularien eskutik.

11:00 TXANBEZPEL taldea herriko kaleetan.

17:30 Kalejira Lizarrako gaiteroekin eta Oria txarangarekin.

18:00 Entzierroa.

Ondoren, gazte kuadrillen jokoak plazan eta **ORIA txaranga.**

20:30 Erromeria TRIKIZIO taldearekin zumardiko karpan.

00:00 Larrain dantza Plaza Zaharrean.



00:15 Kontzertuak zumardiko karpan: **KRISTONAK** eta **BIZNAGA.**



“Kardantxuloen Kantua lehen aldiz abiatu zenetik 17 urte beteko dira aurten”

ANDIMA EGAÑA • Kardantxuloen Kantua



Kardantxuloen Kantuak emango dio hasiera aurten ere, goizean goiz, Marinel Egunari. Herriko musikari talde bat 2006an hasi zen ekimenarekin, euskal kantak berpiztu eta jaietako beste ekarpen bat egin asmoz. Eta, dudarik gabe, herritarrek estimu handian dute haien parte-hartzea jaietako egitarauan. Andima Egaña da antolatzaile eta partaideetako bat.

Noiz hasi zineten Kardantxuloen Kantuarekin? Nolatan?

Kardantxuloen Kantua lehen aldiz abiatu zenetik 17 urte beteko dira aurten Marinel Egunean. Betidanik gustuko izan dugu lagun artean abesten aritzea eta Marinel Eguna aproposa iruditu zitzaigun diana berezia egiteko, kantuan.

Zer nolako kantek osatzen dute zuen erreperitorioa?

Euskal kanta herrikoietan oinarritzen da gure abesten zerrenda; tartean daude kanta zaharrak, oraingoak edota berriagoak direnak ere egon daitezke. Hasieran liburuxka xume bat osatu genuen, baina urteak pasa ahala udalaren eta herriko elkarte desberdinen laguntzarekin liburu potoloagoak ere egin izan dira.

Abesten aritzen direnez gain, zer instrumentu egoten dira presente taldean? Entseguak egiten al dituzue?

Kalez kale ibiltzeko instrumentu desberdinak erabiltzen ditugu: gitarra, eskusoinua, perkusioa..., baina berrin bat agertuz gero ere, primeran! Taldea irekia da, bertan edonork parte hartu dezake, giro onean abesteko gogoia edukita. Jaiak hasi aurretik entsegu batzuk egin ondoren kaleratzen gara. Hala ere, egunean bertan gerturatzen direnak ere ongi etorriak dira.



Abuztuak 18, ostirala Jaien amaiera

07:00 Diana Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00 Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (+16 urte).

11:00 Hamaiketakoa adinekoentzat, Arbil jubilatuen elkartean.

11:30 Herri-kirolak Simon Berasaluze plazan. **Euskal pentatloia:** Aratz Mugerza, Ioritz Gisasolaren aurka.

12:00 Errekortariak plazan.

13:00 Herri-kirolak Plaza Zaharrean. **Aizkolariak:** Iker Vicente eta Jakes Iruretagoiena, Ugaitz Mugerza eta Kimetz Oñederraren aurka.

13:30 Herri-kirolak Arakistain plazan. **Harri-jasotzea:** Karmele Gisasola, Ainitze Zumetaren aurka.



13:30 JOSELONTXO'S txaranga kalez kale.

18:00 Tor eta Txoborro magoen umeentzako ikuskizuna Simon Berasaluze plazan.

18:00 Zezenketa. Toreatzailak: El Mene eta Javier Zulueta. Sobresalientea: Daniel Sanchez. **Ondoren, enbolatuak** (+16 urte).

Jarraian, erraldoi eta buruhandien agurra Plaza Zaharrean, Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

23:30 Danborrada Ozio-Bide elkartearen eskutik, Plaza Zaharrean.

00:00 Jaien amaiera: zapi gorria kenduko zaio San Rokeri.

“Gainontzeko jaialdi guztietan bezala, erakustaldi on bat egitea espero dugu”

KIMETZ OÑEDERRA 'AITTOLA' • Aizkolaria



Senideek egindako bideari eutsita, duela gutxi murgildu zen herri-kirolen munduan Kimetz Oñederra. Mugerza II. arekin bikotea osatuta, Iker Vicente eta Izeta V.aren aurka egingo du erakustaldia.

Aizkolari txapelketetan hasi berria zara. Noiz ekin zenion zehazki?

Orain dela urtebete hasi nintzen.

Eta nondik datorkizu zaletasuna?

Bai aitaren eta bai amaren aldetik, oso zaleak gara. Aitaren familiako batzuk, adibidez, aizkolariak izandakoak dira, eta txiki-txikitatik gustuko izan dudana zerbait izan da.

Urduri al zaude Debako jaialdiari begira?

Beti egoten da azken momentuko urduritasuna eta

kezka, baina gainontzeko jaialdi guztietan bezala, erakustaldi on bat egitea espero dugu.

San Roke jaietan bizilagunen aurrean etxean jarduteak zer suposatzen du zuretzat?

Alde batetik, gustura eta pozik nago etxean nagoelako, baina, bestetik, presio puntu bat ere badut.

Ugaitz Mugerza edo Iker Vicente bezalako txapeldunekin aritzea ere pozgarria izango da zuretzat, ezta?

Eurekin aizkoran aritzeko aukerarik ez dut izan oraindik eta, egia esan, ilusio handia egiten dit euren mailako aizkolariekin plazan aritzeak.

Udan, oro har, antzeko erakustaldi gehiago izaten dira. Zer asmo duzu epe motzean?

Lau erakustaldi dauzkat lotuta, eta horietarako zein udazkenetik aurrera izango ditudan txapelketetarako prestatzen hasita nago.

Aurten ere Nobull CrossFit Games jokoetan izango da Xabi Osa



Xabi Osa atleta debarrak abuztuaren 1etik 6ra Madisionen (Wisconsin, AEB) egingo diren Nobull CrossFit Games jokoetan parte hartuko du; mundu mailako atletarik onenak

batzen dituen jokoetan lehia ariko den hirugarren aldia izango da aurtengoa.

Osa crossfit egokituan aritzen da eta, aurreko bi aldietan bezala, Men Upper Extremity (gizonak, goiko gorputz-adarra) kategorian parte hartuko du.

Kirolari debarra, gainera, sasoi bete-betean iritsiko da abuztuko txapelketa entzutetsura. Gaur-gaurkoz, Espainiako eta Europako lehena eta munduko bigarrena da sailkapen nagusian. 2021eko eta 2022ko jokoetan sekulako maila erakutsi ondoren, bosgarren postua erdietsi zuen. Aurten, beraz, aurrez lortutako marka hobetzen saiatzea eta podiumean sartzea izango da helburua.

Amagoia Arrieta laugarrenez nagusitu da Espainiako Boccia Txapelketan

Amagoia Arrietak bere palmaresa handitzen jarraitzen du. Uztailaren hasieran, esaterako, Valentzian jokatu zen Espainiako Boccia Txapelketan nagusitzea lortu zuen, norgehiagokan fin aritu ondoren.

BC1 kategorian, podiumaren gorenera igotzeko faboritotako bat zen, eta ez zuen hutsik egin; txapelketan laugarrenez garaipena lortu izanak "sekulako ilusioa" egin ziola azpimarratu du. "Arrazoi pertsonalengatik, nire kirol ibilbidearen etorkizunerako garrantzi handikoa izan da txapelketa hau irabaztea".

Urrea eskuratu berritan, helburu berriak lortzeko gogoaz duela azaldu du Arrietak. Abuztuan, Europako



Txapelketan parte hartuko du, Espainiako selekzioarekin, eta helburua 2024ko hitzordu paralinpikorako txartela lortzea dela nabarmendu du. Boccian, kategoria bakoitzeko irabazleek zuzenean eskuratuko dute Parisen lehiatu ahal izateko pasea, eta erronka hori jomugan duela esan du Deban bizi den kirolariak.

Asier Riesgo debarrak futbol profesionaletik erretiratzea erabaki du

40 urte betetzeko aste gutxiren faltan, Asier Riesgo atezainak eskularruak zintzilikatzea erabaki du. Futbolaren elitean 21 denboraldi egin ostean, ibilbide luze eta oparoa izan du.

Amaiak Baten eman zituen lehen baloikadak eta, ondoren, Real Sociadeko harrobian hezi zen. Guztira, lehen eta bigarren mailako sei klubetako armarrria defendatu du: Real Sociedad, Eibar, Recreativo de Huelva, Osasuna, Girona eta Leganes —hantxe egin ditu azken hiru denboraldiak—.

Hainbat hedabideren arabera, baina, futbolari lotuta segiko du, izan ere, UEFA Pro titulua lortzeko eta bere kirol ibilbidea aulkietan jarraitzeko lanean ari dela diote.

Ehunmilak proba nagusia irabazteko atarian geratu da Igon Mancisidor

Igon Mancisidorrek bigarren amaitu du Ehunmilak Ultra Trail modalitateko proba; 168 kilometro luze eta 11.000 kilometroko desnibel positibodun lasterketa osatzeko 24.44.56 denbora behar izan zuen.

Debarra hasiera-hasieratik jarri zen lider eta, lasterketaren buruan 100 kilometro baino gehiago egin bazituen ere, ezin izan zuen proba irabazi. Etzegarate igaro eta gutxira, atzetik zetorren Jesus Bailok aurreratu eta Zaragozakoak indartsu ekin zion azken txanpari, aurkariei aurrea hartzeko aukerarik eman gabe; 24.24.50 denborarekin helmugaratu zen Beasainen.

Abuztua-Iraila

ABU. 2 (ASTEAZKENA)

BISITA GIDATUA

10:00 'Marearteko zabalgunea'. Errota Berri Landetxea, Sakoneta.

ABU. 3 (OSTEGUNA)

ORGANO KONTZERTUA

20:00 'El mayorazgo de Basterretxe' filmaren proiektioarekin. Santa Maria eliza.

ABU. 4 (OSTIRALA)

ODOLATERATZEA

16:30-20:30 Aurrez txanda eskatzea beharrezkoa da (612 40 21 03 telefonora deituta). Luzaro ikastetxea.



ABU. 4-9

ITZIARKO KOPRAIXAK

Egitarau osoa ale honetako 15-17 orrialdeetan.

ABU. 5 (LARUNBATA)

BISITA GIDATUA

09:30 'Atalayas balleneras', Alex Turrillas Aranzetaren eskutik. Irteera Itxaspera, autobus geltokitik.

ABU. 6 (IGANDEA)

ELKARRETARATZEA

12:00 Euskal preso eta iheslarien giza eskubideen alde. Hondartza.

ABU. 10 (OSTEGUNA)

KONTZERTUA

20:00 Open Brass. Santa Maria eliza.

ABU. 12 (LARUNBATA)

TXOSNA BATZORDEAREN EGUNA

15:00 Bazkari herrikoia, nork bere jana eramanda. Sarrera 5€ (edaria barne). Zalburdin salgai. Zumardiko karpia.

16:30 Bingo musikatua.

20:00 Kontzertua: Ñooz.

00:00 Kontzertua: Debrass Band + DJ Suntsitu Makina.



ABU. 14-18

SAN ROKE JAIK

Egitarau osoa ale honetako 22-26 orrialdeetan.

ABU. 19-20

BISITA GIDATUA

10:00 'Debatik Zumaiara itsasontziz'. Anes Arrinda pasealekutik (pantalana).



ABU. 24 (OSTEGUNA)

KONTZERTUA

20:00 Ander Telleria soinu-jolea. Santa Maria eliza.

ABU. 31 (OSTEGUNA)

KONTZERTUA

20:00 Teresa Albero (sopranoa) eta Erik Garcia (pianista). Santa Maria eliza.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

BURGOA ZUAZO Uztailak 28, 29, 30.

Abuztuak 7, 8, 9, 10, 25, 26, 27. Irailak 4, 5, 6, 7, 22, 23, 24.

ZALDUEGI Abuztuak 11, 12, 13, 21, 22, 23, 24.

Irailak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01

BURGOA ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGOA ZUAZO Uztailak 29.

Abuztuak 19 eta 26 | Irailak 16 eta 23.

ZALDUEGI Abuztuak 5 eta 12.

Irailak 2, 9 eta 30.



DEBA | Bulego berria
Maxpe kalea, 7 behe ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behe ☎ 943 20 70 02

📧 asesoriagestilan
🌐 gestilan.es
✉ gestilan@gestilan.es

CARITASEN TONBOLA

Abuztuaren 4tik txartel guztiak saldu arte

Sagarna denda zegoen lokalean egongo da zabalik, Portu kalean. Egunero irekiko dute, 12:00etatik 22:30era. Azken zozketa berezia abuztuaren 25ean egingo dute, 19:00etan.

ARTE ERAKUSKETA

'Zer axola dio, azkenean pintura da'

Abuztuaren 31ra arte
Jon Amorrorturen eta Mikel Erkiagaren erakusketa. Asteartetik larunbatera 17:00etatik 19:00etara, eta igande eta jaiegunetan 17:00etatik 20:00etara. Elizako klaustroa.

IRA. 2 (LARUNBATA)

MERKATU TXIKIA

09:30 Estalitako pasealekua.

IRA. 6-9

XVI. ANIMADEBA

Animaziozko Nazioarteko Zinema Jaialdia.

IRA. 9 (LARUNBATA)

KALE MARGO LEHIAKETA

54. edizioa, Haitz Haundi Elkartearen eskutik.

LASTURKO JAIK

17:00 Pilota txapelketako finalaurrekoa.
Ondoren, Nikolas Txikiren jaietsiera.

19:30 Patata-tortilla lehiaketa.

IRA. 10 (IGANDEA)

LASTURKO JAIK

SAN NIKOLAS EGUNA

11:00 Meza nagusia.
Ondoren, hamaiketako, bertsolariak eta trikitalariak.

12:00 Pilota txapelketako finalaurrekoa.

Jarraian, bolo txapelketa.

14:00 Herri bazkaria.

Ondoren, jolasak, zezenak eta errektoriak.

IRA. 11 (ASTELEHENA)

LASTURKO JAIK

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, hamaiketako.

12:00 Umeen pilota partidak.

Jarraian, buruhandiak.

14:00 Umeen bazkaria.

Ondoren, jolasak, dantzak eta trikitalariak.

IRA. 15 (OSTIRALA)

LASTURKO JAIK

21:00 Bertso afaria.

Ondoren, erromeria Bide Batez taldearekin.

IRA. 16 (LARUNBATA)

LASTURKO JAIK

11:00 Bikoteen arteko pilota partidak eta bolo txapelketa.

Ondoren, herri bazkaria.

17:30 Dantza emanaldia, jolasak eta zezenak.

IRA. 17 (IGANDEA)

LASTURKO JAIK

09:30 Meza nagusia.

Ondoren, hamaiketako eta pilota txapelketako finala.

14:00 Bazkaria.


Ondoren, herri-kirolak.


Amaitzeko, zezenak, pailazoak eta Nikolas Txikiren igoera.

IRA. 30 (LARUNBATA)

EUSKAL JAIA

Egun osoko egitaraua.





PILARIK GABEKO AUDIFONOAK
PROBATU HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20 20820 Deba, Gipuzkoa
info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

EKAINEKO SABIDUNAK

1. **Saria:** Itziar Beristain, Nerea Soto, Arantza Iriondo.
2. **Saria:** Mariaje Carrillo, Olatz Beitia, Sara Arozena.

EKAINEKO ERANTZUN ZUZENAK

- | | |
|----------------|-------------------|
| 1 > 3. edizioa | 4 > Santua |
| 2 > Laia | 5 > Cajal Urtea-n |
| 3 > Itsaskabra | 6 > 3. postuan |

Jarraitu gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkarteak

**HURRENGO HITZORDUAK**

berriketan.eus/agenda

IRAGARRI ZURE EKIMENA

Irailean izango gara bueltan. Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitetz gurekin harremanetan. berriketan@zuhatza.com
943 19 13 83

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkarteak	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Iifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kiroldegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Landide	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - beheka | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com



ieraenea
kodenda

"maite ditut nire/gure bazterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraeneda@gmail.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

INGELES
AKADEMIA

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206

info@english-square.net



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31



pentsioa



Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba



50 URTE

BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauean tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



A. Esnaola
P. Echeverria

Hortz klinika Clinica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808

@pyadent

CONSERVAS
YURRITA

1867

GASTRONOMIKA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN
ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



Zuzeneko salmentaren udako ordutegia:

Astelehenetik-ostiralera 09:00-18:30

Larunbatak 10:00-14:00



Online salmenta:

www.yurritagastronomika.com



sarean edota dendan erosteagatik

% 20ko deskontua

kupoi hau aurkeztuz

ZUZENeko SALMENTAN

50€tik gorako erosketetan,
uztailean eta abuztuan erabilgarri

ONLINE SALMENTAN

50€tik gorako erosketetan
ondorengo kupoa sartuz:
BERRILAGUN